

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2020 Foru Dekretua, irailaren 15ekoa. Onespena ematea interes orokorreko 2020rako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrendari, bat etorritik irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak ezarritakoarekin

Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.

Hain zuzen ere, foru arau horren 29. artikulua 1. apartatuak dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes orokorreko helburuen eremuan.

29.1 artikulua arabera, lehentasunezko mezenasgo jardueretarako eta programetarako izendatzen diren diru zenbatekoek araubide berezi bat dute. Diru zenbateko horiek garbiak eta soilak izan behar dira; ezin dute eduki inolako kontraprestaziorik. Araubide berezi hori honetan datza, laburbilduta:

a) Lehentasunezkotzat jo diren jarduera edo programetarako diru zenbatekoak gastu kengarri izango dira sozietateen gaineko zergaren oinarria eta establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren oinarria zehazterakoan; enpresarientzat eta profesionalentzat, berriz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren araubidean.

b) Sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek kendu egin dezakete zehaztutako kuota likidotik lehentasunezkotzat jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 18 (kuota likidoa lortzen da, hain zuzen, kuota osoari zergapetze bikoitzari dagozkion zenbatekoak eta, hala balegokio, hobariak kenduta), publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diru zenbatekoak ere barne direla.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, zuzeneko zenbatespenaren pean gauzatzen badituzte ekonomia jarduerak, kendu egin dezakete kuota osotik lehentasunezkotzat jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 18, publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diruak ere barne direla.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gainerako subjektu pasibo lehen aipatutakoez bestekoek kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezkotzat jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 30.

Horiek horrela, foru dekretu honen bidez, zehazten da 2020ko ekitaldirako zer jarduera edo programa izango diren lehentasunezkoak, bai eta zer baldintza eta prozedura ezarriko diren zenbait jarduera lehentasunezkotzat izendatzeko ere, guztia ere irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Horrez gain, 2020an lehentasunezko jarduera izaten jarraituko dute Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 7ko 180/2020 Foru Dekretuan jasotakoek, zeinak onesten baititu Arabako Foru Aldundiari COVID-19 dela-eta emandako zenbatekoei buruzkoan, hark izaera publikoko zerbitzu sozio-sanitarioetarako erabil ditzan.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da betetzea Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 29. artikulua-
luaren gaitzea.

2. artikulua. 2020an lehentasuna izango duten jardueren zerrenda

Bat. Ondoko jarduera edo programa hauek izango dira lehentasunekoak 2020ko ekitaldian, Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 29. artikulua-
ren ondorioetarako.

a) Gizarte zerbitzuen esparruan:

Gizarte zerbitzuen arloko jarduerak gauzatzen dituzten gizarte izaerako entitate onura publikokotzat jotakoei emandako diru zenbatekoak.

Ondorio horietarako, lehentasuneko jarduerak izango dira soilik hauek:

1. AFADES Alzheimerria edo dementzia senila dutenen senideen Arabako elkarte.
2. «Isabel Orbe» Araban Down Sindromea dutenen aldeko elkarte.
3. Ongintzako HOGAR ALAVÉS kultur elkarte.
4. ASPANAFHOHA - Haur Onkohematologikoen Gurasoen eta Gaitza dutenen Elkarte.
5. Arabako Hiesaren aurkako Hiritarren Batzordea.
6. Adimen desgaitasunen bat duten pertsonen aldeko Arabako Elkarte (APDEMA).
7. Hartutako Burmuineko Gaitzaren Arabako Elkarte (ATECE).
8. Usoa Tutoretza Fundazioa.
9. Lankidetzarako ingeniari-
ritza elkarte.
10. Vitoria-Gasteizko Arabako Elikagai Bankua, elikagaiak xahutzearen aurkako Vitoria-Gasteizko elkarte.
11. Espainiako Gurutze Gorria, Arabako lurralde historikoan garatu dituen jarduerengatik.
12. Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Caritas, Arabako lurralde historikoan garatu dituen jarduerengatik.
13. Atalaxia-telangiektasia Familien Espainiako Elkarte, Arabako lurralde historikoan garatu dituen jarduerengatik, Vitoria-Gasteizen egiten den Aitzina Folk Festival jaialdi solidarioa barne.
14. Aspace Araba, elbarritasun zerebralaren eta antzeko gaitzen elkarte.
15. Itxaropena, ikusmen urritasuna duten pertsonen Arabako elkarte.
16. Doble Sonrisa Fundazioa.

b) Ingurumenaren esparruan:

1. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako babestutako naturaguneetako ingurumena berreskuratzeko, onik zaintzeko, ikertzeko eta zabaltzeko programetarako.
2. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako Lurralde Historikoko foru bizikleta bideak eraiki, hobetu eta onik zaintzeko obrak finantzatzeko.

3. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea eraiki, hobetu, onik zaindu, sustatu eta zabaltzeko.

4. Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak, Arabako ingurumenaren osotasun ekologikoa leheneratzeari dagokionez.

c) Garapen teknologikoaren esparruan:

Ikerketa, garapen edo berrikuntza jarduerak gauzatzen dituzten pertsona eta erakundeei emandako diru zenbatekoak.

Ondorio horietarako, lehentasuneko jarduera izango da soilik Eduardo Anitua Fundazioa.

d) Kulturaren esparruan:

1. Arabako Artium Fundazioa.

2. Santa Maria Katedrala Fundazioa

3. Vitoria-Gasteizko Jazzaldia Elkartea.

4. Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola.

5. Vitoria-Gasteizko Arte Sakratuaren Museoa.

6. Arabako Arte Ederren Museoa.

7. Arabako Natura Zientzien Museoa.

8. Arabako Arma Museoa.

9. Arabako Arkeologia Museoa (BIBAT).

10. BIBAT, Arabako Fournier Karta Museoa.

11. EHUri emandako diru zenbatekoak, Iruña Veleiaren eta Arkaiako erromatar termen arkeologia proiektuak gauzatzeko.

12. Artziniegako Etnografia Museoa.

13. Euskaltzaindia.

14. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea.

15. Eusko Ikaskuntza.

16. Arabako Foru Aldundia, euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunak zaharbertzeari eta/edo birgaitzeari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren, toki erakundeen, udalen eta kuadrillen jabetzako babes bereziko, ertaineko eta oinarritzko mailetan.

17. Arabako Foru Aldundia, babes bereziko edo ertaineko kultura ondasuntzat jotzen diren arkeologia zonak ikertzeari, berreskuratzeari, hobetzeari, kontserbatzeari, sustatzeari eta zabaltzeari dagokionez.

18. Añanako Gatz Harana Fundazioa.

19. Vitoria-Gasteizko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko Gune Elkartua.

20. Azkena Rock Festival sustatu eta antolatzeko ARF Vitoria-Gasteiz SL enpresari emandako diru zenbatekoak.

21. FesTVal, Vitoria-Gasteizko Telebista eta Irrati jaialdia, sustatu eta antolatzeko Fila 2 kultura elkarteari emandako diru zenbatekoak

22. Asparreneko Umore Antzerkiaren XXVII. Jaialdia antolatzeko Asparreneko Udalarari emandako diru zenbatekoak.

23. Arte eszenikoekin loturiko jarduerak sustatu eta antolatzeko Arabako Foru Aldundiari emandako diru zenbatekoak.
 24. Vitoria-Gasteiz Hiri Napoleonikoen Europar Federazioan sartzearen ondorioz egiten diren jardunetarako Vitoria-Gasteizko Udalari emandako diru zenbatekoak.
 25. Añanako kuadrilla, Micaela Portilla lantegi eskola dela eta.
 26. Arabako Foru Aldundia, Arabako lurralde historikoko agiritegian dauden agiri historikoen artxibatzea dela eta.
 27. Arabako Foru Aldundia, Santa Katalina Lorategi Botanikoaren berreskuratzea, hobetzea, zaintza, sustapena eta hedapena dela eta.
 28. AAVOZ-Opera eta Zarzuelaren Araba eta Vitoria-Gasteizko Lagunen Kultura Elkarte.
 29. Sancho el Sabio Fundazioa.
 30. Teatro Paraisori emandako diru zenbatekoak, Haziara programak eta Antzerkia Eskolan kanpaina sustatzeko eta antolatzeko.
 31. Porpol Teatreri emandako diru zenbatekoak, Vitoria-Gasteizko Arte Eszenikoen Lantegia sustatu eta antolatzeko.
 32. Panta Rhei Antzokiari emandako diru zenbatekoak, landa inguruneko arteen Festikale jaia sustatzeko eta antolatzeko.
 33. Arabako Ikuzentzuzeko Ekoizle Burujabeen Elkarte (APIKA).
 34. Arabako Diseinu Grafikoaren Profesionalen Elkarte (DIGA).
 35. Arabako liburu-saltzaileen gremioa.
 36. Artekale, Euskadiko Kaleko Arteen Elkarte.
 37. Karraskan, Euskadiko berrikuntza kulturaren eta berrikuntzaren kultura sustatzeko elkarte profesionala.
 38. Eskena, Euskadiko ekoizpen eszenikoko enpresen elkarte.
 39. ADDE, Euskal Herriko Dantzako Profesionalen Elkarte.
 40. Euskal Irudigileak (APIE-EIEP), (IRUDIKA, Vitoria-Gasteiz).
 41. Garaion Naturarte Elkarte (Ozaeta).
 42. Moare Dantza Taldea (Azala, Lasierra).
 43. Hunkitu Arte, Poetak maiatzean jaialdiaren proiekturako.
 44. Kultura Kalean! Elkarte Korterraza proiekturako.
 45. Parasite Kolektiboa (Baratza), Festival Zurrumbilo Festibalerako.
 46. Arabako Argazkilaritza Elkarte.
 47. Erakusmeta Kultur Elkarte, Zas kultur espaziorako.
 48. Kultur ACT Elkarte, Artgia Sorgune Aretorako.
- e) Kirolaren esparruan:
1. 5+11 Fundazioa
 2. Kirolaraba Fundazioa.
 3. Vitoria-Gasteizko Martín Fiz Nazioarteko Maratoia egiteko Asociación Cultural Deportiva Maratlón Elkarteari emandako diru zenbatekoak.

4. Arabako lurralde historikoa ordezkatzeko duten kirol entitate nazioartean jarduten dutenei emandako diru zenbatekoak. Ondorio horietarako, Saski Baskonia SAD soilik izango da lehentasuneko jarduerak.

5. Arabako Foru Aldundia, Izki Golf gunearen barruan dagoen Urturi golf zelaian lehiaketak egiteko emandako diru zenbatekoengatik.

6. Zuzenak kirol kluba.

7. Zuzenak Fundazioa.

8. Araberri Basket Club-i emandako diru zenbatekoak, gizarteratzeko kirol jarduerak egiteko.

9. Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federazioak, Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan arautuak, eta horien erakunde elkartuak, kirol federatu ez-profesionalari eta eskola kirolari dagokienez.

Salbuespen gisa, lehentasuneko jardueretako mezenasgoaren zerga onurak jaso ahal izango dituzte 2020. urtean zergadunek ordaindu dituzten federazio lizentzien edo eskola kuoten 100eko 25ari dagozkion zenbatekoek.

f) Enpresen gizarte erantzukizunaren esparruan:

1. San Prudencio Lan Fundazioa.

2. Arabako Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Foroa (FOARSE) Elkarteak.

d) Gizartearen esparruan:

1. Fernando Buesa Fundazioa.

2. Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren (SAED) Adiskideen Arabako Elkarteak.

h) Euskara sustatzeko esparruan.

1. Araba Euskaraz 2020 antolatzen duen erakundeari emandako diru zenbatekoak.

2. Errioxa Kultur-Elkarteari emandako diru zenbatekoak.

i) Interes orokorreko bestelako helburuetako esparruan.

1. Euskampus proiekturako Euskal Herriko Unibertsitateari emandako diru zenbatekoak.

2. Abastos Fundazioari emandako diru zenbatekoak.

3. Vital Fundazioari jarduerak hauetarako emandako zenbatekoak: Vital Fundazio Aretoko erakusketak, Astearte Musikalak, Euskal Zinearen Astea, Jaibus Bital, Vital por Álava programa eta Araba Ekintzailea: Enpresa lasterketa.

4. Tubacex Fundazioari emandako diru zenbatekoak.

5. Diocesanak-Jesus Obrero Fundazioari emandako zenbatekoak.

6. Formula Student Vitoria-FSV ikasle elkarteari emandako zenbatekoak, Formula Student txapelketan parte hartzeko.

7. Asociación ARGIA_3 kultura elkarteari Vitoria-Gasteizko Argi Jaialdirako emandako zenbatekoak.

8. Arteale fundazioari emandako zenbatekoak.

Bi. Era berean, lehentasunekoak dira estatuko eta lurralde historikoetako organo eskudunek halakotzat jotako jarduerak, betiere, batak zein besteak onartutako araudiaren arabera, elkarri hala aitortzen badizkiote Arabako Foru Aldundiak foru dekretu honetan onartutako jarduerak.

3. artikulua. Lehentasunezko jarduerak kirol esparruan

Foru dekretu honen 2. artikuluan kirol esparruan lehentasunezko zatiz izendatutako jardueraz gain, Arabako Lurralde Historikoko emakumezkoen kirol talde eta atalei emandako diru zenbatekoak, bai eta Arabako Lurralde Historikoan garatutako kirol jarduerak eta lehiaketei emandakoak ere, baldin eta haietan emakumeak badira protagonista edo emakumeen parte hartzea eta genero estereotipoak apurtzea eta emakumezkoen ezagutza soziala sustatzen badute berariaz. Hau da, jarduerak horiek guztiak lehentasunezko jarduerak izango dira kirol esparruan, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Kirol esparruko lehentasunezko jarduerak aitortzeko prozedura

Aurreko artikuluan xedatutako ondorioetarako, 2020ko ekitaldian, kirol esparruan beren jarduerak lehentasunezkoak izan daitezkeen interesa duten pertsona fisikoek eta juridikoek 2020ko abenduaren 1a baino lehen eskatuko diote Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari. Eskaerarekin batera, lehentasunezko jarduerak gauzatzen duen erakundearen proiektua ere aurkeztuko da, alegia, lehentasunezko jarduerak izan dadila eskatzen duen erakundearena, eta proiektu horrek, besteak beste, diru sarreren eta gastuen aurreikuspen bat jasoko du.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez aitortuko zaio lehentasuna jarduerak bati kirol esparruan. Horretarako, ezinbestekoa izango da aurreko paragrafoan aipatzen den eskaera aurkeztea eta, foru dekretu honetan ezarritako betebeharrak ez ezik, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako betebeharrak betetzea.

Ezer ebatzi aurretik, espediente Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari bidaliko zaio.

5. artikulua. Ziurtagiria

Irabazteko xederik gabeko erakundeek zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikuluan jasotako zerga onurak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da zergapekoek, foru arau horretan ezarritakoarekin bat etorritik, zergaren autolikidazioaz gainera, ziurtagiria aurkeztea, frogatzeko kenkaria sortu duten diru zenbatekoak lehentasunezko jarduerak edo programetarako erabili direla.

Ziurtagiri hori zergapekoek emandako zenbatekoak jasoko dituzten entitateek berek eman beharrezkoa da.

Aurreko 2. artikuluen Bat apartatuaren b) letraren 1., 2., 3. eta 4. puntuetako kasuetan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eman behar du artikuluko honetako lehen bi paragrafoetan aipatzen den ziurtagiria.

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Zuzendaritzak eman behar du artikuluko honen lehen bi paragrafoetan aipatzen den ziurtagiria, 2. artikuluen lehenengo apartatuaren d) letraren 16., 17., 23., 26. eta 27. puntuetako eta 2. artikuluen lehenengo apartatuaren e) letraren 5. puntuko kasuetan.

6. artikulua. Mugak zerga pizgarriei

Egindako ekarpena dagokion programa edo jarduerak garatu eta egiteko beharrezko inbertsioen eta gastuen batura baino txikiagoa denean baino ez dira aplikatuko irabazi asmorik gabeko erakundeek eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidea onetsi zuen uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 29. artikuluan xedatutako zerga pizgarriak.

Muga hori gaindituz gero, ekarpen zaharrenei aplikatuko zaie zerga pizgarria.

7. artikulua. Foru dekretu honetan jasotako erakundeek emandako ondasunak eta eskaintako zerbitzuak baztertzea

Irabazi asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidea onetsi zuen uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauko 29. artikuluan xedatutako zerga pizgarriak ez zaizkie inondik inora aplikatuko foru dekretu honetan lehentasunezko izendatzen diren jardueren erakunde egileek eskaintako zerbitzuengatik edo emandako ondasunengatik egindako kontraprestazioei.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Zenbait kirol jarduera lehentasunezko jarduera izaten jarraitzea.

Foru dekretu honen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoetarako, jarduera hauek lehentasunezkoak izango dira 2020. urtean ere: Araski Elkarteak eta Gaztedi errugbi klubak egindako kirol jarduerak; izan ere, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru diputatuaren abenduaren 9ko 239/2015 Foru Aginduaren bidez eta abenduaren 15ko 242/2015 Foru Aginduaren bidez 2015. urterako aintzatetsitako kirol entitateak dira.

Bigarrena. 2020rako ere lehentasunezko jardueratzat jotzea Arabako Foru Aldundiak gizarte eta osasun zerbitzu publikoetara bideratu ditzan erakunde horri COVID-19 dela-eta emandako zenbatekoak

2020rako lehentasunezko jarduera izaten jarraituko du Foru Gobernu Kontseiluaren Arabako Foru Aldundiari COVID-19 dela-eta emandako zenbatekoei buruzko apirilaren 7ko 180/2020 Erabakiz adieraziak, hark izaera publikoko zerbitzu sozio-sanitarioetarako erabil ditzan.

Hirugarrena. 2021erako lehentasunezko jarduera edo programa izateko adierazpena eskatzea.

Foru dekretu honetan dauden lehentasunezko jarduerak eta programak eta araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta 2021erako eskatzen diren jarduera eta programa berriak 2021erako lehentasunezko programa edo jarduera izan daitezen, eskaera eta dagozkion agiriak aurkeztu behar dira, dagokion baliozkotzea egin dadin eta lehentasunezko programa edo jarduera izango diren erabaki dadin.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2020. urterako izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA